


Noaua !!



Gure Pakearen egoitza berria izango da Artzabal



Koldo Huegun mendizalea

Shisha Pangma bidean da



AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Txistoki Pasealekua, z/g

943 593 525

E-posta:
andoain@ikastola.net

Web:
www.andoainikastola.net

AITA LARRAMENDI IKASTOLA - ANDOAIN

BATXILERGOA

ZIENTZIA eta TEKNOLOGIA
GIZA eta GIZARTE ZIENTZIAK

Euskaraz eta Ikastolan

Kalitate kontrastatua - Langiro ona - Instalazio eta ekipamendu egokiak



Kuota egokiak - Orientazio profesionala - Tutoretza pertsonalizatua

Tren zahar
autobus
KOMUNIKAZIO
BIKAINA



Brinkola - Andoain - Irun

Tolosa - Andoain - Donostia
Hernani - Urnieta - Andoain



**ATE IREKIAK
EGUNA**

APIRILAK 27

arratsaldeko

17:00 eta 19:00

bitartean.

ZATOZ

BISITA GAITZAZU!



OSASUN GIDA



FARMAZIAK

farmazia
ISIDORO ITURRALDE

Homeopatia

Formulación magistral

Burdia, 35m1. ☎ 943 36 22 95

ODONTOLOGIA



Odontologa

Dra. M^a Jesús Rubio Muñoz

Enxebre, 10, es. 1 - 1^o Etx. USURRI
☎ 943 38 18 55

MASAJISTAK

UMA
masaje lekua

Lepoko eta bizkarreko minak
Kirol eta oinetako masajea

K/ nagusia, 10-atzekaldea
☎ 659 043 486

LOGOPEDAK

LOGOPEDA-PEDAGOGA

Ulermen arazoak.
Ahozkatzeko zailtasunak: Dislaliak, "rr".
Afoniak- Disfoniak. Dislexia, Disglasia...
Degluzio atipikoa.

Konsultaren ordua eskatzeko, deitu:
☎ 635 70 13 74

Badok Amairu !!

Gaizka Maiz: "Ezin naiteke kotxerik gabe bizi"

Gaizka Maizek mekanika ikasketak egin zituen Lanbide Eskolan. Orain, ordea, ostalaritzan egiten du lan. Parrandazale amorratua den honek bi aldiz pentsatu gabe erantzun ditu galderak.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.
Makarroiak bexamelarekin.

2. OHITURA TXARREN BAT.
Erretzea.

3. ZER GORDETZEN DUZU
SAKELAN?
Txanponak.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?
Nigan, zergatik ez?

5. ZERI DIOZU BELDURRA?
Altuerari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.
Gurasoak eta arreba.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...
Kotxerik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.
Asteburu batean kotxez 1.000 km
egitea Gipuzkoatik irten gabe.

9. LIBURU BAT.
Ez naiz oroitzen azkena noiz
irakurri nuen.

10. FILM BAT.
"Van Helsing".



11. LEKU BAT.
Orioko behatokia.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.
Bizi naizen lekua.

13. URTARO BAT.
Negua.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 EGUZKITZALDEA - 20.170 USURBIL
 Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

OLATZ ALTUNAREKIN SOLASEAN **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

SHISHA PANGMARA BIDEAN **8. OR.**

Koldo Huegun mendizalea lehen zortzi milakoa osatzeko asmoz abiatu da Tibet aldera. Puntako mendizaleak izango ditu espedizio-lagun.



KULTUR EKITALDI UGARIRI AHIRILEAN **10. OR.**

FAMILIA EUSKALDUNAK BEHAR DIRA **11. OR.**

2006KO UDAL AURREKONTUAK **12. OR.**

APIRILAREN 9AN, TOKA TXAPELKETA **14. OR.**

XXIV. PILOTA TXAPELKETA, HASTEAREN **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea!



AITOR LANDALUZE

Abarrak

Aranerrekako ur hotzetan sustraiak freskatzera joan ohi dira Usurbilgo zuhaitzak, martxoko lehen beroalditan. Gaztañagako mimosa urduri egon ohi da, negu osoan lagunak ikusi gabe eta martxokoak izaten dira negu luzearen ondorengo lehen erreko bilerak. Gainera berak badaki, inortxok ezer esan gabe, orduantxe inoiz baino ikusgarriago egoten dela eta zeruari hego-haizea erregutzen dio, ahalik eta erreka ondoan lagun gehien biltzeko. Mimosa, azkena iristean denen miresmen kolektiboa sor dezakeela jakin arren, urduritasunaren ezinonak lehena izatera bultzatu du eta hantxe da, arratsaldeko hiruretan Kalexarko eskaileren ondoko putzuan. Bertakoak haritzak, hurritzak, haltzak eta bestek urrutitik ikusi dute erabat harrotuta hurbiltzen ari zitzaizela eta hala ere mutu utzi ditu, denak erdi biluzik oraindik eta bera eguzkia baino dirdiratsua.

Gerora gertuen bizi direnak iritsi dira, Artzabalgo intxaurra eta lizarra, Cuarentaidosko ereinotzarekin. Hauek bertan ziren lagunekin topo egin dutenean Gaztañagako edertasuna goraiatzea beste erremediorik ez dute izan. Berehalak sekulako buia eginez Patri eta Udaletxeko platanok etorri dira. Gainera musika eta dantza saioa egin behar dutela eta di-da batean hasi dira txalaparta jotzen, Markesako pagoaren balada hain zuzen ere.

Negu luzeko kontuak elkarri kontatzen jardun dira besteak, euri asko edo gutxi egin duen ezin adostu, tenporek

hau eta bestea esan dutela, badakizue arbolen kontuk. Berandu xamar, Txirristako ginkgo biloba, Etxezuriko olibondoa eta Zumarteko tiloa etorri dira, susto aurpegia ekarri dutenez beste guztiak erne entzun dute olibondoa-ren istorioa.

Euskaltegira zihoala, Zumarteko tiloa zain zeukan ate ondoan eta Kontsejutzikiko magnolioari etxe bat jarri diotela sustraien gainean eta ezin duela erreka ondoko elkar-terera etorri kontatu dio. Berak txikerra egin, Rosak barka diezaiola, eta bien artean ea laguntzerik izango zuten magnoliarengana joan dira, Txirristako ginkgoak ere ikusi ditu eta laguntzera hurbildu da.

Eta? Galdetu dute beste guztiak olibondoak arnasa hartzeko etena egin duenean. “-Etxe handi bat jarri diotela sustraien gainean eta harrapatuta dagoela, agian poliki sustraiak aldatuz eta, aterako dela baina.... itxura txarra du”.

Bukatu duenean, hau entzun dutenek, mutu eta zur zeuden ginkgo eta tiloari begira gelditu dira, bi hauen iritzia edo jakin nahian, itxaropenaren azken hazia... Hauen aurpegiek ordea, olibondoaren diagnostikoarekin bat egiten dutela adierazten dute. Bilera erabat lainotu da, gizakia- ren begietan sufritzen duten gardentasuna ezin ulertuz, kexu, haserre eta noski, goibel oso goibel gelditu dira.

Potxonea atzekoekin gogoratzen? Galdetu du Kalexarko arte zaharrak. Ondo gogoratu ere, han diren denek ihintza tanto bat isuri dute hosto batetik edo bestetik.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: apirilak 21. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 28.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 383 348 · 609 888 021

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozolegia

LABE-GOXO


ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Olatz Altuna, 18/98 sumarioan auzipetua

“Epaiketa noiz bukatuko den ez jakitea da okerrena”

Atzerapenak atzerapen, apirilaren 3an deklaratu zuen epailearen aurrean Olatz Altunak, 18/98 sumarioan auzipetuta dagoen usurbildarrak. Epaile aurreko agerraldia pasa bada ere, oraindik Madrilera joaten jarraitu beharko du. Olatz Altunak adierazi digunez, “epaiketaren bukaera noiz iritsiko den ez jakitea, hori da okerrena”.

NOAUA! Nolako izan zen epaile aurreko agerraldia?

Olatz Altuna. Aurretik, Mikel Aznarrek deklaratu zuen, Joxemi Zumalabe fundazioan nire lankide izandakoak. Galderak oso antzekoak izan ziren. Patronatuko gainerako kide eta sortzaileei egindakoen antzekoak. Guri akaso galdera teknikoagoak egin zizkiguten. Eguneroko lanaren ingurukoak.

N. Defentsaren galderak bakarrik erantzun zenituen, ezta?

O. A. Bai. Fiskalaren eta herri akuzazioaren galderei ez nien erantzun («herri mugimenduak kriminalizatu nahi dituztenei ez diet erantzungo» esanez).

OLATZ ALTUNA

“Joxemi Zumalabe fundazioaren zeregina zein den islatzea lortu dugula uste dut”

N. Urduri jarri al zinen?

O. A. Hasieran uste baino lasaiago nengoen baina gero urduri jarri nintzen itzulpenak ez zirelako egokiak. Euskaraz deklaratu nuen baina kontzeptu asko ez zituen ezagutzen itzultzaileak. Azkenean, itzultzailez aldatzea eskatu nuen.

N. Zu izan zara Zumalabe fundazioaren artean azkena deklaratzeko.

O. A. Bai, hala da. Fundazioa zer zen eta zer den azaldu diegu. Euskal Herrian giza mugimendu pilo bat dagoela. Sententziari begira, ez dakigu gure adierazpenek ze pisu izango duten. Baina pozik gaude adierazi beharrekoak ondo adierazi ditugulako.

Euskal Herrian badugu giza mugimenduen berri baina Madrilen arraroa egiten zaie hori guztia.

N. Maila pertsonalean, deklarazioaren trantzea gainetik kendu duzu.

O. A. Zentzu horretan, banuen nire txanda pasatzeko gogoia. Hona (Madrilgo Entzutegi Nazionalera) modu lasaiago batean hurbiltzeko aukera izango dut.

N. Lana, familia... Azken hilabeteak ez ziren errazak izango zuretzat.

O. A. Lanari dagokionez, minimotan ari naiz. Astean hiru eguneguz Madrilera etorri behar dut. Eguneroko bizimodua hankaz gora dugu. Dena den, epaiketaren bukaera noiz iritsiko den ez jakitea, hori da okerrena. Oso mantso doa dena. Deklarazioen ondoren, lekuko eta peritoen txanda izango da. Egunerokotasuna guztiz baldintzatuta dugu baina gure artean dugun giro onak asko laguntzen du. Babesa ematen diogu elkarri.

N. Azkenik, su-etenaren aldarrikapenak kontestu politiko berri bat ekarri du. Albistea pozik hartuko zenuten, ezta?

O. A. Izugarritzko poza hartu genuen. Azken finean, epaiketa politiko batean aurrean gaude. Eta politika orokorra bide onetik doa, hori dirudi behintzat.

Hala ere, sententzia urruti dago; zer gertatuko den ez dakigu. Oraingo behintzat ez dugu aldaketarik nabaritu. Gure kontrako neurriak ez dira



OLATZ ALTUNA, JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOKO KIDEA.

arindu. Ea denborarekin zer edo zer aldatzen den.

18/98 + lan taldearen bisita jaso zuen Olatzek

18/98+ Usurbilgo lan taldeko kideak Madrilgo Entzutegi Nazionalean izan ziren martxoaren 29an. Olatz Altunari eta gainerako auzipetuei elkartasuna adieraztera abiatu ziren Madrilera. Herri mugimendu askotako ordezkariekin bat egin zuten Entzutegi Nazionalaren aurrean eginiko agerraldian. Arnaldo Otegiaren agerraldia ere egun horretan izan zen. Otegiaren aurka oldartu zirenek 18/98+ lan taldekoen autobusa ere erasotu zuten.



TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Argituko ote ditugu



la ondoko argazkiari.

Iraganaren lekuko den juntetxeko haritza zutik eusten saiatzen direnei berez jaiotako haritzak enbarazu egiten dietela dirudi. Erreparatu bestela pasa den larunbatean nortzuk ziren Bilboko manifa falta zirenak. Itxaropena eta bizi dugun zulo honen bukaera begi bistara azaldu direnean, prozesu berriari bultzada bat eman beharrean, matematika ariketak eginez burubelarri dabilta hurrengo hauteskundeetan eserleku eroso horiek galtzeko beldurrez.

Larunbatean bildutako milaka eta milaka lagunek ez ote die Ibarretxe Imaz eta konpainiari begiak zabaltzeko balioko?

Honela ez bada, ez al da da garaia milaka ez, milioika lagunek, gatazka eta sufrimenduari etekin politikoa ateratzen dienen aurrean begiak zabaltzeko?



KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Debekuaren urtea



Horiek lehenagoko kontuak ziren, orain Etxebeste eta Irazu kaleak hutsak ikusten dira. Jendearen ohiturak aldatu egin dira edo hobe esanda aldatuarazi egin dituzte.

Horrelako garrantzia al dute tabernek? Ba nik baietz esango nuke. Ikusi besterik ez dago eguraldi onak egin dituen egun hauean jendea nola pilatzen den frontoi atzeko inguru horretan. Taberna atariak jendez beteta egoten dira eta zerbitzariak kanporaino ateratzen dira basoak jasotzera.

Duela gutxi bi mahai ere jarri dizkigute (lehen txirristra handia zegoen tokian) eta hasiera batean inor ez bazen ausartzen bertan esertzen, dagoeneko jendea animatzen hasi da. Aurtengo udan bazkari edo afariak egiteko leku txarra ez. Aukeran sonbrilatxo batzuk jarri eta bertatik bertara moldatzeko moduan izango gara.

Nork ez du pentsatu gustura jarriko litzakeela Txiriboga eta Aitzagako petrilean? Ea ba bat edo bi, uda honetarako irekitzen dizkiguten eta goiko mahaietan ez den iladarik egiten.

KALEZAR

AINARA URIBE

Adibide txarrak hartzen

Udaberriarekin batera iritsi zaigun berri esperantzagarriarekin denak alaiago ezta? Itxaropena piztu digu denei ere egun hauean ahoz-ahoz dabilkigun berriak. Orain hasten da gure lana, herritarron lana, beraz denak martxan jarri beharko dugu.



Kalexarko auzoari buruz hitzegin behar det beraz harira noa. Donosiako udaletxeak hiritik kanpo eraikitzen ditu edo eraiki nahi ditu bertako paisaia itsusitzen dituen gauza guztiak: errausategia, kartzela, etxe multzo handiak... eta Usurbilgo udaletxeak gurekin, kalexartarrekin berdina egin nahi duen inpresioa daukat. Beste behin ere esan nuen baina ezer egin ez dela ikusirik errepikatzen noa: Udarregi Ikastola zeneko gune hori oso-oso itsusia dago, brigadak behar dituen tresnak eta materialak jasotzeko ere balioko du baina hori, txatarrerri batean bihurtzen ari da. Sikiera sarearen ordez egurrez estalita egongo balitz ez litzateke barrukoa ikusiko eta askoz txukunagoa geratuko litzateke.

Arduratzen didan beste gaia, Ugarte da, pentsatze hutsak, baserri eder horren tokian auzo bat agertuko dela etxez josita, atzerakada handia ematen dit. Beraz har ditzatela hartu beharreko neurriak eta auzoari ahalik eta transformazio txikieana egin diezaioaten. Eta ez dezatela Gipuzkoako hiriburuaren exenplurik hartu.

Ondo segi, zaindu eta lehen lerroekin geratu!

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Parkeak txukuntzeko garaia

Udaberriarekin batera hasi gara eguzkia hartzen. Baina, eguzkitan goxo-goxo egoteko benetan toki aproposa da parke eder eta garbi bat ezta? Gure auzoko parke hauek ez daude ordea oso egoera onean, nahiz eta Mahaspildegiko soziedade aurrean hainbat banku berri jarri, alboko parkea ahazturik daukagu. Auzoan beste bi parke ere benetan zahartuak eta ahazturik daude. Haurrak parke hauek jolastera joaten direnean, ezin dute ez kulunpio, ezta txirristran ibili, hauek puskatuak edota egoera tamalgarrian baitaude.

Nire iritziz, Usurbilen hainbat auzo berri egin dira eta hauekin batera parke eta jolastoki berriak egin dira eta arrazoi honen ondorioz herritarrok bertara joaten gara, "badakizue berria beti nobedadea omen da", baina Atxegalde ahaztua daukagu. Beraz, ea denon artean gure auzoak garai batean zuen bizitasuna lortzen duen. Auzotar guztiok gure oroimenean baititugu garai batean izaten ziren gure auzoko jaiak ospatzen ziren egun haiek eta auzokideok izugarritzko ahaleginak egiten zituztela gure auzoaren bizi poza mantentzeko. Beraz, badakigu zer egin, lehenik eta behin gure auzoko parkeak egoera hobean jarri ezkeror berriz ere haurrez beteko lirateke eta hauei esker auzoak izugarritzko aldaketa positiboa egingo luke. Egunetik egunera, gure auzoa tristeago baitago eta gure esku dago Atxegalde lehenago auzo eder eta alai hura bihurtzea.



SANTUENEA

PAKO AGUDO

Sevillako gaua gure auzoan



Harrigarria da gure auzoan dagoen mugimendua azken bolada honetan eta udaberrian sartuta gainera. Zorionez bizi-bizi dago auzoa, zein ondo datorkion elkarlana auzoari!

Dakizuen martxan den ikastaro horietako bat "sevillanak" dantzaten ikastekoa da. Bestalde apiril-

an sartuta gaude, udaberria, egun luzeak, odola berotuta... Hara ze ekuazio erraza! "Sevillanak" eta apirila. Bai bai, larunbat honetan gure dantzariak, apirilean gaudela aitzakia hartuta, festa antolatzen ari dira. Denok dakigu Sevillakoa bezain koloretua eta berezia ez dela izango baina, etxetik gertu, gau polit bat lagun artean pasatzeko aukera emango digu. Afaria Tragoxka tabernan izango da eta ikastaroan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ederra. Eta dantzatzen ez badakizu baten bat irakasteko prest egongo dela ziur nago. Afaloste polita izango dugu larunbatean auzoan.



Bestalde, Txokoalde aldera pasatzeko aukera izan baduzue konuratuko zineten bide zaindari berri batzuk ditugula. Martxan daude obrak eta dagoeneko farolak non kokatuko diren badakigu, baita eserleku berriez ere gozatzeko aukera ere.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Zabortegia



Askotan, toki batetik egunero pasatzen garen Arren, ez gara konuratzen ematen ari den aldaketaz eta horixe gertatu zait gure auzoko zabortegiarekin.

Gogoan dut nola aspaldi, zikinkeria guztiak hor botatzen zirena. Gero kartel bat jarri zuten baina hala eta guztiz ere, jendeak ez dakit gehiegi errespetatzen duen kartel hura. Nik beti pentsatu izan dut hura zela San

Estebanen alderdi iluna.

Orain dela urte batzuk ere ibili ziren bertan zaborra edo "eskonbroak" kentzen eta harriak eta honelako gauzak botatzen hasi ziren.

Gaur egun berriz zeharo aldaturuta dago. Alde batean mendixka antzeko bat dago baina dena txukuntzen ari dira. Zabaldutako erregin dute, ia sendategiko kruze-raino iristen da lurra eta zuhaitzak edo jarri behar dituztela ere entzun dut. Ea egia den eta txukun-txukun gelditzen den gure txoko "ilun" hau.



AGINAGA

M^AANGELES ARRUTI

Aste Santua

Gaiean dugu Aste Santua eta gehienak jai egiteko zain egongo gara. Batzuk kanpora joateko aprobetxatuko dute, beste batzuk mendira irtenaldi ederrak egiteko eta naturarekin bat eginez disfrutatzen eta beste batzuk herrian geratzeko. Azken hauek aukera izango dute elizan ospatzen diren hitzaldiak entzuteko. Aspaldian ikusi gabeko lagunak eta familiartekoak bisitatzen edo etxean dauden gaixo eta zaharrez gogoratzeko ere aprobetxatuko dute askok. Aukera zabala ematen dituzte bost egun hauek eta denei oso ondo etorriko zaigu.

Azkenik, sendotza eguneko argazkia duzue hauxe.



ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Plaza, autoentzat?

Udaberriko zelaiak lorez nola, hala betetzen zaizkigu Zubietako plazak jendez, larunbat eta igande arratsaldetan. Eta pozgarria da oso bizirik dagoela ikusteak, neguko hustasunaren ondoren. Udaberriaren eztanda dugu; gero, uda partean, hemengo gehienak hondartza aldera lerratuko dira eta.



Baina, guztiak du bere ifrentzia. Kanpotik jendea etorri bai. Autoz etorri, ordea. Eta bertakoak aparkatzeko nahiko axolagabe ibili bagara, pentsa ezazue zer-nolako kuxidada den plaza kotxez beteta. Bagenekien hala gertatuko zela, eta hemen dugu arazoa.

Hala ere, beharbada, oraindik garaiz gaude: plaza ez dute inauguratu. Gehiegikeria litzateke, dagokionari –inauguratzera etorri behar duenari–, autoak plazan sar ez daitezkeen behar diren baliabideak jartzeko eskatzea?

Gainera, bidean eragozpenak jarrita, harri batez bi txori harapatuko genituzke: bidea moztuko genieke bai plazan aparkatzea gogoko dutenei, bai gaueko ordu txikitik, frontoi barruan autoa sartzeko ohitura dutenei.

Ez naiz ni nor esateko zein den bide egokia arazoa konpontzeko. Baina hobe berandu baino lehen.

Shisha Pangma bidean da Koldo Huegun

Shisha Pangma Tibetean dagoen mendia da. 8.027 metrora dagoen gaina zapaltzeko asmoarekin abiatu dira Koldo Huegun eta bere lagunak. Esperientzia handiko mendizalea, akaso hau da Koldok izan duen erronka handiena. Everesten ibilitako mendizaleak izango ditu bidelagun. Eta hori bada abantaila.

NOAUA! Aspaldiko egitasmoa da ala azken orduan suertatu zaizun aukera?

Koldo Huegun. Bien arteko zerbait. Lehengo urteko udan hasi ginen Usurbildik Shisha Pangmara joateko egitasmoa lantzen. Bost bat lagun animatu ginen, baina egitasmoak ez zuen aurrera egin. Dena den, eskiatzen nirekin ibiltzen diren Goierriko lagun batzuei azaldu nien zein asmo genuen. Urtarrilean edo etorri zitzaizkidan ea Usurbilgo egitasmoa zertan zen galdezka, eurek ere joateko asmoa zutela eta baimenak eta abar konpartitzeko prest zeudela. Usurbildik azkenean ez zela ezer atera esan nien eta beraiekin joateko gonbitea luzatu zidaten. Horrela sortu zait Shishara joateko aukera.

KOLDO HUEGUN

“Teknikoa baino, fisikoa da Shisha Pagma. Zortzi milakoetan errazenetakoa”

N. Zeintzuk izango dira zure bidaia-lagunak?

K. H. Altueran dezente ibilitakoak denak. Batzuk 7.000 arte, beste batzuk 6.000 arte. Badira Everesteko gailurra egindako bi mendizale ere. Esperientzia handiko jendea da. Ez dakit hauen mailan egongo naizen edo ez, hori da nire kezka.



BESTE MENDI BATZUK ERE EGINGO DITUZTE KOLDOK ETA BERE LAGUNEK.

N. Guztira zenbat mendizale?

K. H. Bederatzi gara guztira, baina zortzik egingo dugu Shisharako bidea. Gero beste bi mendizale Everestera joango dira. Jon Goikoetxea (Ibarra), Unai Aizpuru (Tolosa), Manu Jouver (Alegia), Iosu Feijoo (Gasteiz), Willy Bañares, Karlos Gonzalez (Gasteiz), Juan Mauel eta Jose Juan Sarasola anaiak (Ordizia) eta ni.

Maiatzaren 22an, etxean

N. Zenbat egun izango zarete etxetik kanpo?

K. H. Apirilaren 6an abiatuko gara eta okerrik ez bada maiatzaren 22an itzuliko gara.

Nolakoa da Shisa Pangma?

K. H. Zailtasun teknikorik ez dauka. Hirugarren kanpamendutik gora, 7.400etik 8.000 bitartean 600 metroko zati zail bat dago, baina teknikoki erraza da. Zortzi milakoen artean, errazenetakoa.

N. Horrelako espedizioari aurre egiteko babesleen laguntza ezinbeste-

koa izango da, ezta?

K. H. Gehiena Feijooeren eskuetan utzi dugu. Madril aldean harreman onak ditu. Janari gehiena Eroskik eman digu eta Cegasa eta horrelako konpainiek ere zerbait eman digute. Babeslerik garrantzitsuena, hala ere, Nutricare etxea da, janari energetikoa eta dietetikoak egiten dituen enpresa. Eta gero nire kasuan lantokikoak ere lagundu naute, SUVEL enpresakoek.

“Esperientzia handiko jendearekin noa”

N. Hau da Shisha Pangmara joateko garai onena?

K. H. Bai, bi garai dira egokienak: montzoi aurretik edo montzoi pasata eta gero. Orain montzoi aurreko garaia da.

Usurbildik abiatzeko asmotan ginenok udazkenari begira ari ginen, baina beste hauek udaberrirako presatu dute bidaia. Eta ikusirik esperientzia handiko jendea dela, konfiantza osoz noa Tibet aldera.

Koldo Huegun: "Ez da mendi zaila"

NOAUA! Esperientziarik baduzu aurretik. Dena den, hau izango da orain arte egin duzun espedizio garrantzitsuena.

K. H. Bolumen aldetik ez dauka zerikusirik orain artekoarekin. Baina aurretik egin ditudanak ere erronkak izan dira niretzat. Adibidez, Khan Tengri bakarrik igotzeak ikaragarritzko ahalegina eskatzen zuen.

Baina oraingoa ezin da egin ditudan beste espedizio batzuekin alderatu. Dagoeneko Shishara 750 bat kilo material bidali dugu eta bakoitzak beste 30-40 eramango ditugu. Sukaldariak hartu, yakak alokatu... Hori ere egin beharko dugu. Mendia ez da hain zaila, baina bestelako lanak ere egin beharko dira.

N. Zortzi milako mendi bat egiteko asmoa aspaldikoa da eta orain artekoak prestaketa-lana izan al dira?

K. H. Nik uste zortzi milakoekin hasi aurretik derrigorrezko pausuk direla eman ditudanak. Baina denak hartu ditut erronka gisa. Aurtengoa oso mendi polita da, oso deigarria. Agian ez altuerari hainbeste begiratu-ta, gehiago mendiari begiratu-ta. Baina zortzi milako bat egiteko lehenik aurreko guztia pasa behar dela uste dut.

N. Hara abiatzea, bere horretan, bada konforme egoteko modukoa?



EZ DU ZORTZI MILAKORIK IGO BAINA ESPERIENTZIA HANDIA DU GOI MENDIAN KOLDO HUEGUNEK.

K. H. Bai, konforme egoteko modukoa bai. Fisikoki ezin badut eta mendia ni baino gehiago bada, ez da ezer gertatuko. Seguru jaisterakoan

pilo bat gozatuko dudala; ezin izan dut eta kito.

Eguraldia arazo ez izatea eskatuko nuke.

8.027 metro

NOAUA! Shisha Pangmara igo den jendearen iritzia jasoko zenuten.


K. H. Bai, Karlos Gonzalez lehenago egona da bertan. Interneten informazio asko dago gaur egun, baina azkenean behar dena zuzeneko informazioa da, gezur asko ere aurki daitekeelako Interneten. Batez ere Karlos Gonzalezen bitartez lortu dugu informazioa.

M. Tibet aldean dagoen mendi

honen garaiera zein da?

K. H. 8.027 metrokoa. 8.043ra beste tontor altuago bat dago, baina oso gutxitan igotzen da. Elur-alista zorrotz bat da eta bakarrik egoera onean aurkitzen bada igoko dugu.

Aipatzekoa da 6.900 metro ingurura arte, eskiekin igoko direla Unai Aizpuru eta Koldo Huegun.



Kultur ekitaldiz beteta iritsi da apirila

Kulturala izango da aurtengo apirila Usurbilen. Antzerki, kontzertu, ikastaro eta beste-lako ekitaldiz josita dator.

Apirilaren 7an hasi eta hilabete bukaera arte Sutegik ekitaldi ugari jasoko ditu bere baitan.


Anariaren kontzertua izango da hila-beteko lehena. Apirilaren 7an "Zebra" diskoa aurkeztera baitator.

Apirilaren 8an larunbata, antzerki saioa izango da Santuenean, "Arratsalde bat zinean" izeneko obra.

Hilaren 12an Sagardo Egunaren aurkezpen ekitaldia egingo da Saizar Sagardotegian (aurtengoa XXV. edizioa izango da).

Apirilaren 23an haurrentzako "Groau!" antzerkia eta hilaren 29an "Ahulkiak" antzezlan izango dira Sutegin ikusiko ditugun bi antzezlanak.

Ezin ahaztu apirilaren 25erako



HARKAITZ CANO IDAZLEA,

"AHULKIAK" ANTZEZLANEKO KIDEA.

Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak antolatu duen ikastaroa: "Sagarra, sagardoa eta sagarkiak sukaldaritzan". Xabier Tello izango da irakaslea eta ez da egun bakarreko ikastaroa izango: maiatzaren 2, 9 eta 16an izango du jarraipena. Matrikularen prezioa 30 eurokoa.

Apirilak 7, ostirala

- 22:30ean Anariaren kontzertua Sutegin. Antolatzaila: NOAUA!

Apirilak 8, larunbata

- 12:00etan, "Arratsalde bat zinean" antzerkia Santuenea Kultur Elkartearen aretoan.

Apirilak 12, asteazkena

- Gonbidatu eta komunikabideentzat, Usurbilgo XXV. Sagardo Egunaren aurkezpen ekitaldia Saizarren.

Apirilak 23, igandea

- 16:30ean eta 18:30ean (bi saio), "Groau!" antzezlan Sutegin.

Apirilak 25, asteartea

- 19:30ean, "Sagarra, sagardoa eta sagarkiak sukaldaritzan" ikastaroa hasiko da Agerialden.

Apirilak 29, larunbata

- 22:30ean, "Ahulkiak" antzezlan Sutegi Kultur Etxean.

Maiatzaren 5ean hasiko da Jexux Artze Taldeak prestatu duen kultur astea

2003tik hona, Jexux Artze Taldeak urtero ekitaldi sorta antolatu ohi du maiatza aldean. Aurten bada berrikuntzarik: Sutegin egingo dira ekitaldi denak. Usurbilgo Udalaren babesarekin eta NOAUA! Kultur Elkarteak lagunduta, film emanaldi bat, kontzertu bat eta antzezlan bat proposatu nahi digute.

Maiatzaren 5ean 22:00etan, "Aupa Etxebeste!" filma ikusteko aukera izango dugu.

Maiatzaren 6an larunbata, Pier Paul Berzaitz kantaria eta bere taldea hurbilduko dira Sutegira.

Eta bukatzeko, maiatzaren 13an 22:30ean antzezlan Sutegin: "Larru haizetara". Ez dok hiru konpainian euskal antzerkian eskarmentu handia duten bi partaide bildu dira: Mikel Martinez eta Patxo Telleria.



DISKO BERRIA AURKEZTUKO DU
PIER PAUL BERZAITZ KANTARIAK.

Film emanaldia doan izango da baina gonbidapenak aurretik jaso beharko dira. Pertsonako gehienez bi. Kontzerturako eta antzerkirako sarrerak Lizardin eta Mahukan erosi ahal izango dira, aurretik 8 eurotan eta bertan 10 eurotan.

Apirilaren 26an,

Andoni Egañaren hitzaldia

Andoni Egaña bertsolaria Ahozkoatasunari buruzko hitzaldia eskaintzera etorriko da Usurbila. Apirilaren 26an asteazkena, arratsaldeko 19:30ean Sutegiko auditorioan.

Nafartarrak kultur taldearen eskutik iritsiko da Andoni Usurbila. Aipatzekoa da talde honek web-gunea zabaldu berri duela honako helbidean: www.nafartarrak.com.

Orain arte egindako ekitaldi guztien irudiak jasota daude.



“Euskara ikasi nahi dut eta familia euskaldun baten bila nabil”

Azken urteotan bezalaxe, HABEK “Egonaldiak familia euskaldunetan” izeneko ekimena antolatu du. Ekimen honen helburu nagusia hauxe da: euskara ikasi nahi duen ikasleari inguru euskaldun bat ziurtatzea. Egonaldiak hilabete edo bi hilabetekoak izan daitezke. Ikasle bat hartzen duen familia bakoitzak 600 euro jasoko ditugu.

“Egonaldiak familia euskaldunetan” egitasmoa HABEK antolatu ohi du. Azken lau urteotan euskaltegi homologatuen artean deialdia egin du HABEK, eta Donostiako Urrats eta Bilboko Ulibarri euskaltegiei esleitu zaie ekimen honen antolaketa. Nolanahi ere, HABEK segitzen du egitasmoaren sustatzaile gisa, eta finantziazioan nahiz jarraipenean ere parte hartzen du.

Programa honen bidez, euskara ikasi edo hobetu nahian nahiz bertako euskalkia ezagutzeko asmotan dabilen pertsonari familia euskaldun batean hilabete bat edo bi pasatzeko aukera ematen zaio (uztailean, abuztuan edo irailean). Aldi berean, herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko aukera ere.

Kanpaina honetan parte hartzeko asmoa duten familiek zenbait baldintza bete beharko dituzte: biztanleriaren %70 euskalduna den udalerrietako zein auzuneetako batean bizi beharko dute (Usurbilen betetzen den baldintza da hauxe); egonaldia eskaintzen den hilabeteetan gutxienez hiru pertsona bizi beharko dira e-

txean, eta hauen arteko ohiko komunikazio-hizkuntza euskarazkoa izan beharko da; logela pribatua eman beharko zaio ikasleari; familiako bizi-tzan parte hartuko badu ere, bere gutxienezko intimitatea eta askatasuna errespetatu beharko dira; ikaslea ez da behartuta egongo etxeko zein baserriko lanak egitera, baina berak hala nahi izanez gero, parte har lezake eginkizun horietan.

Programaren antolatzaileek erabakiko dute zein familiek betetzen dituzten baldintzak horiek denak egokien.

Ikasleak, gogoan izan, 18 urtetik gorakoak izango dira guztiak, eta familiak aukeratu ahal izango du gizonazkoa ala emakumezkoa nahiago duen. Hileko 600 euro jasoko ditu familiak baina, hori bai, egonaldi bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izango du.

Izena emateko epea apirilaren 25ean



INGURU EUSKALDUN BATEAN IKASI NAHI DUTEN IKASLEEI ZUZENDUTAKO DAGO KANPAINA HAU.

amaituko da, beraz, parte hartzeko asmoa duten familiek izena emateko orria data hau baino lehen bidali beharko dute. Informazio gehiago eta eskaera orriak Usurbilgo Udaleko Euskara Zerbitzuan edo bi euskaltegien webgunean lor daitezke:

www.egonaldiak.net

NEREA KORTA

Bete beharreko baldintzak

Baldintzak

- Hilabeteko egonaldiak izango dira gutxienez, eta bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izango da.
- Ikasleak 18 urtetik gorakoak izango dira.
- Egonaldia eskaintzen den hilabeteetan, etxean gutxienez hiru lagunek bizi beharko dute.
- Etxeko ohiko komunikazio-hizkuntza euskara izango da.
- Ikaslearentzat logela bat libre egon beharko du.

Kobrantzak

- Familiak 600 euro jasoko ditu hilabeteko.

Izena emateko epea

Apirilak 25.

Informazio gehiago

Usurbilgo Udaleko Euskara Zerbitzua: 943 37 19 51.

Urrats Euskaltegia: 943 47 44 47
webgunea: www.egonaldiak.net

IGELTSE ITZ
t
INTU

94 48 11 7 8 3 5 5 5
2 1 57 27 5

l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

2006ko aurrekontuak onartu dira

Inbertsio nagusiak: Artzabalgo Zahar Egoitza, Kale Nagusia-Eguzkitza, Harane, Atallu eta Aginagako hilerri-bidea

Atzerapenez bada ere, udal batzarrak onartu du EA eta EAJ-PNV alderdiek osatzen duten udal gobernuak aurkeztu duen aurrekontu proposamena. Iaz bezala, aurrekontuaren %1 garapen bidean dauden herrialdeek jasoko dute. Atzerapenez eta inbertsioetaz galde egin diogu Luismari Ormaetxea alkateari.

NOAUA! Zergatik atzeratu da udal aurrekontuaren onartzea hainbeste?

Luismari Ormaetxea. Hiru arrazoi nagusi daude. Batetik, Kale Nagusia eta Eguzkitza auzoko obrak errekurrituak izan ziren iaz. Gobernu Delegatuak errekurritu zituen lehenik eta ondoren Estatuko Abokatuak obrak berehala geldiarazteko neurri kautelarrak eskatu zituen. Udalbatza plenoan, idazkariak errekurtsio hori onartu behar genuela aholkatu zuen, eta beraz, obrak geratzea. Gu ez geunden udal idazkariak esandakoarekin konforme. Abokatu bat kontratatu genuen eta neurri kautelar horien inguruko auzia argitu arte zain izan gara. Guk ez genuen Eguzkitza eta Kale Nagusiko obra hori geldiarazi nahi. Duela gutxi eman du bere iritzia epaileak eta bere iritziz obrak aurrera egin behar du. Lan horiek ezinbestekoak direla ondorioztatu du. Estolderia, ur-hartu-neak eta auzo horrek dituen gainerako arazoak ezin direla gehiago atzeratu eta lan horiekin aurrera jarraitzea erabaki du epaileak. Epaiketa iristen denean ikusiko da zer gertatzen den baina guk nahi bezala, obrak aurrera egingo du.

UDAL AURREKONTUA 2006

10 milioi eta erdi eurokoa da udal gobernuak proposatu duen aurrekontua

Aurrekontu proposamena prest genuen urtarrilerako baina epailearen erabakiaren zain izan gara.

Atzerapenaren bigarren arrazoia, iaz bezala, udal kontu-hartzailearen txostena izan da. Txosten hau ezinbestekoa da aurrekontua bideratzeko garaian. Aurten



GURE PAKEA ELKARTEAREN EGOITZA BERRIAN BILAKATUKO DA ARTZABAL BASERRIA.

ere, iazkoaren ildotik osatu du txostena eta bere ustez aurrekontu hauek legez kontrakoak dira. Zain izan garen epe honetan, gure aurrekontu proposamena defendatzeko aldeko txostenak prestatu eta idatzi ditugu.

Hirugarren arrazoia alderdi sozialistaren eskaera bati erantzutea izan da. Azken aldi honetan setatsu dabil alderdi sozialistako bozeramalea, Amaya Goyaran, dokumentazio guztia erdaratu behar dugula-eta. Aitzakia honen bidez aurrekontua bertan behera geratzeko arriskua ekiditeko asmoz dokumentazio osoa erdaratzen igaro dira aste batzuk.

N. Udalbatza plenotik pasa eta gero, noizko izango da aurrekontu berria indarrean?

L. O. Plenoak onartu eta gero Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta alegazioak egiteko epe bat zabalduko da. Alegaziorik egongo balitz, alegazio horiei erantzun eta bigarren onartu beharko genituzke aurrekontuak. Inork alegatuko ez balu, hamabost eguneko epean behin betiko onartuta egongo litzateke aurrekontua.

N. Aurrekontu proposamenari helduz, zeintzuk dira udal gobernuak aurrera atera nahi dituen proiektu nagusiak?

L. O. Aurrekontua 10 milioi eta erdi eurokoa izango da. Usurbil bezalako herri batentzat aurrekontu handia da. Iazkoaren jarraipena izango da inbertsio batzuetan.

Eguzkitza-Kale Nagusiko obren gastuak, esate baterako, 2005 eta 2006ko aurrekontuen artean banatuta daude.

Harane futbol zelaiarekin berdin. Hirugarren fasea, aldagelei dagokiona eta 500.000 euro ingurukoa, aurtengo aurrekontuan azaltzen da.

Atalluko udal biltegia eraikitze-bidean da eta hor ere inbertsio sendo batzuk egin beharko ditugu.

Aginagan ere, argizatze lan batzuek gain, hilerri bidea zabaldu eta berrituko dugu.

Baina inbertsio nagusia Artzabalgo Zahar Egoitza izango da. Jaime Abalos arkitektoa jada ari da proiektua idazten. Obra hori aurten hasiko da eta espero dezagun gehiegi ez luzatzea (era honetan, orain kaxkoan dagoen Gure Pakea jubilatutako elkartearen egoitza berrian bilakatuko da Artzabal baserria).

Zubietan eta kiroldegian egin nahi ditugun lanak kontuan hartuta, guztira 3,4 milioi euroko inbertsioa aurreikusiko dugu, aurrekontuaren heren bat.

Baina solidarioa ere bada aurrekontu berria. Programa asko jasotzen ditu bere

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

(Aurreko orrialdeetik dator)

baitan. Akaso oso ezagunak ez direnak: enplegu programa sendo bat dugu. Instituzio ezberdinen laguntzarekin, aurtent 20 bat lagun kontratatuko ditugu enplegu programa hauen bidez (formazioa eman, praktikak ziurtatu eta enpresa pribatuan txertatzeko bideak eskainiz). Igeltseroak eta teknikariak kontratatuko ditugu Agerialdeko udal etxebizitza sozialak (*maisu etxea* deritzona) konpontzeko.

Hastapen tailerretan ere, lanbide bat irakatsi eta askok eta askok lana aurkitu ohi dute.

LUISMARI ORMAETXEA

“Garapen bidean diren herrialdeen artean 91.000 euro banatuko ditugu”

Garapen bidean dauden herrialdeak ere kontuan hartu ditugu. Aurrekontuaren sarreren %1 bideratuko dugu zeregin horietara. Kopuru inportantea da hori, 91.000 eurotik gora. Lehiaketa bidez, Afrikan, Asian eta Ertamerikan egingo diren hainbat proiektu sustatuko ditugu.

Etxebizitzak begibistan

N. Etxebizitza ugari aurreikusi dira Olarrondon eta Ugartondon. Zer esan diezaiokegu etxebizitza baten zain dagoen gazte jendeari?

L. O. Bi proiektu horiekin, babes ofizialeko 168 etxebizitza eta tasatuak izango diren beste 168 etxebizitza eraikiko

dira. Beste 23 etxebizitza, alokairu sozialaren bidez kudeatuak izango dira. Proiektu horiek aurrera doaz, bide burokratiko-administratiboa jarraitzen ari dira.

Baina dena ez dago gure esku. Gauza asko etxebizitzak eraiki behar dituztenen baitan daude. Olarrondon adibidez, bost izango dira promotore lanak egingo dituztenak. Beraiekin izandako azken bileran oso jarrera baikorra agertu zuten. Udalak eman beharreko pausoak ez dituztela oztopatuko ondorioztatu genuen.

Plan Partziala onartu behar da lehenik. Hasierako onespina eman diogu. Laster Foru Aldundira joango da Plan Partziala. UHLk alegazio bat aurkeztu du etxebizitza hauek egitearen aurka, baina ikuspegi politiko batetik egingo eta ez hainbeste oinarri teknikoetan, beraz, ez da oztopo handia izango. Horregatik uste dugu

Foru Aldundiak baiezkoa emango diola Plan Partzialari.

Bitarte horretan, Birbanaketa Proiektua idatzi behar da eta hori ere ia bukatuta dago. Udaletxeak egin behar duen azken lana Urbanizazio Proiektua izango da. Hilabete honetan erabakiko dugu nork idatziko duen. Beraz, okerrik ez bada, udaren ondoren, beharrezko diren tramitazio denak eginak eta onartuak izango ditu Udalak. Gero, promotoreak izango dira etxebizitza proiektuak egingo dituztenak. Baina nik uste dut urte bukaerarako eskuartean izango ditugula etxebizitzaren planoak eta orduan jakingo dugula noiz hasiko diren obrak.

Ugartondoko operazioa ere antzekoa da. Dena den, epe laburrera esku-orri baten bidez informazio zehatzagoa eskainiko dugu.

IMANOL UBEDA

Harane futbol zelaiaren urtea?

A Ituna&Uria izango da Harane futbol zelaiako lurraren egokitzapena egingo duen enpresa. Hiru hilabete eta erdian, lurra egokituta egon beharko luke. Ordurako, belarra artifiziala jartzeko lanak esleituta egon beharko lukete. Epeak betetzen badira, herriko futbol taldeek abuztu bukaerarako entrenatzen hasteko aukera izango dute. Aldagelen lanak bukatzea faltako da. Dena den, denbo-



raldi berria Haranen has dezakete Usurbil FTko taldeek. Denborak esango du hala izango den ala ez.

Eguzkitza herritzaerakoan auzotarren iritzia hartu da kontuan

Eguzkitza auzoa hankaz gora dago une honetan. Duela bi hilabete hasi ziren auzoa txukuntzeko lanak. Estolderia arazo ugari zituen eta lan horiek jada bideratuta daude. Orain, lur-azaleko urbanizazioari ekiteko garaia da. Bigarren fase honi ekin baino lehen, Udalak prozesu partehartzailea ireki du. Luismari Ormaetxea alkateak azaldu digunez, “auzoko bloke bakoitzeko administrariekin bildu gara. Bi alternatiba genituen eta auzotarren iritzia eza-gutu nahi genuen”. Batean, auzoa oinezko bihurtzeko aukera jasotzen zen. Bestean, autoei leku egiten zitzaion. Oinezko izaera galdu gabe, bigarren alternatibak aparkalekuetarako tokiak

aurreikusten zituen. Alkateak azaldu digunez, “auzotarrek gogotsu hartu zuten erronka. Bilera ugari egin dituzte portaletan zein portal artean. Nabarmenezkoa da kontsentsu maila handia izan dela”. Ez hori bakarrik. Alkatearen esanetan, “hirugarren alternatiba bat proposatu dute. Teknikariekin oraindik kontsultatu ez badut ere, hasiera batean arrazoizkoak dirudite aurkeztu duten alternatibaren hainbat ikuspegi eta ideia. Esperientzia aberasgarria izan da eta oso pozik nago jendearen jarrera eraikitzailea izan delako”.

Eguzkitza auzoko barrualdea oinezkoentzat izango da eta auzoaren periferian



ZUBIAURRENEA, ERREKA TXIKI
ETA BORDABERRIN HAINBAT
APARKALEKU EGOKITUKO DIRA.

(Zubiaurrenea, Erreka Txiki eta Bordaberri kaleetan) ahalik eta aparkaleku gehien egingo dira.


Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan partehartzeko epea zabalik

Aste Santuko oporraldia gure idazle sena garatzeko garai egokia izan daiteke. Felix Aizpurua Literatura Lehiaketa-rako idatziak prestatzeko sasoi polita. Maiatzaren 9an amaituko da lanak aurkezteko epea. Baina idazlanak aurreratzeko garaia izan daiteke Aste Santukoa. Idazlanaz gain, eta lanari gratatuta, lanaren izenburua, egilearen izen-abizenak, jaiotako urtea, adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila adierazi beharko dira. Lan bakoitzak egile bakarra izango du eta DBHko ikasleek lana ordenadorez idatzia aurkeztuko dute.

Olerkiaren neurria librea izango da, baina prosazko lanek neurri jakinak izan behar dituzte: A taldekoek 1 edo 2 orrialde, B taldekoek gutxienez 2 eta gehienez 5 orrialde, C taldekoek gutxienez 2 eta gehienez 6 orrialde, eta D taldekoek gutxienez 3 eta gehienez 8 orrialde.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 9an amaituko da.

Sariei dagokienez, talde bakoitzak bere sariak ditu. A taldean lehen



LANAK UDARREGI IKASTOLAN
EDOTA UDAL EUSKARA
ZERBITZUAN AURKEZ DAITEZKE.

hiru sariak 50, 40 eta 30 euro materialetan eta diploma bana.

B taldean lehen hiru sariak 60, 50 eta 40 euro materialetan eta diploma.

C taldean lehen hiru sariak 70, 60 eta 50 euro materialetan eta diploma.

D taldekoek 80, 70 eta 60 euro dirutan eta diploma.

Epaimahaikide izango dira: Luis Aranalde, Xabier Pikabea, Juan Luis Zabala eta Ibon Beristain.

Apirilaren 9an, toka txapelketa Aitzaga elkarteak antolatuta

Otsailaren 11n itxi zuten Aitzaga Kultur Elkartearen egoitza. Eta elkartearen egoitzarekin batera, Aitzaga taberna ere. Itxiera salatzeko, Aitzagakoek hilabetero ekitaldi bat antolatuko zutela iragarri zuten. Honen harira, apirilaren 9an toka txapelketa egingo da Aitzaga inguruan.

Irabazleak arkumea eta txanpain botilak eskuratuko ditu. Bigarren sailkatzen denak, 2 kg txuleta eta txanpain botila.

Edonork har dezake parte. Hori bai, aurretik 3 euro ordaindu eta gero. 12:00etan hasiko da txapelketa. Izen-ematea txapelketa hasi baino lehen egin beharko da.

Txapelketa eta gero hamaiketako banatuko dute Aitzagakoek.



ANTXETA
taberna-jatetxea

agitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL • 943 370 344

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

teilatuak eta fatxadak

JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 • ASTEASU
© 943 69 68 52 • 620 800 186

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Hastear da herriko XXIV. Pilota Txapelketa

Asteburu honetan hasi eta Santixabel eguna bitartean pilota partida ugari ikusteko aukera izango da herriko pilotalekuan. Andatzpe-Peña Pagola elkarteak antolatutako XXIV. Usurbilgo Pilota Txapelketa hastera doa eta edizio honetan ere Euskal Herri osoko maila handiko pilotariak izango dira protagonista nagusiak.

Aurtengo edizioan bada nobedade nagusi bat. Iaz jubencil maila alde batera utzi eta 22 urtez azpikoen maila jarri zuten, baina aurten ere hiru kategoria desberdin izango ditu herriko pilota txapelketak: jubenilak, 22 urtez azpikoak eta nagusiak.

Jubenil mailan Donostialdea bailarako 8 bikotek jokatu dute. Tartean izango dira herriko pilotariak ere. Eñaut Esnaolak Orioko Lizarralderekin jokatu du, Imanol Esnaolak Aiako Sarasolarekin, Jon Esnalek Hernaniko Ezeizarekin eta Iker Zinkunegik Oiartzungo Agirrezabalarekin.

Beste bi maileri dagokionez, txapelketa honetan parte hartuko duten pilotari gehienak gipuzkoarrak izango dira. Hala ere, bai 22 urte bitartekoen mailan eta bai nagusien mailan nafarrak ere dezente izango dira eta Araba, Bizkaia eta Iparraldeko pilotariak ikusteko aukera ere izango dute herriko pilotalekura gerturazten diren guztiek.

Aurten ere bikote kopurua mugatua izango da. 22 urtez azpikoetan 37 bikote izango dira eta nagusien mailan, berriz, 35. Erabiliko den sistemari dagokionez, kanporaketa bidez erabakiko da nork egiten duen aurrera. Partida galtzen duen bikotea kanpoan geldituko da eta irabazleek, berriz, aurrera egingo dute. Norgehiagokak asteburuetan jokatu dira eta Santixabel egunean, uztailaren 2an, izango dira finalak.

22 urtez azpikoen mailan herriko pilotariak lau izango dira. Aitor Iturralde Lasarteko Granadorekin jokatu du, Asier Portuk Etxegarai beratarrarekin eta Patxi Bengoetxea eta Adur Urkia ere txapelketan izango dira. Nagusien mailan, berriz, Javi Santxok Gernikako Zubiaga izango du kide, Xabier Errastik Lizartzako



HUIZIK ETA LANDAK ESKUZ BINAKAKO TXAPELA LORTU DUTE.

Mintegi, Iker Artolak Legazpiko Etxaburua, Unai Arozenak Orbegozo azkoitiarra eta Enrike Huizi eta Asier Arrutik elkarrekin jokatu dute.

Bestalde, Gipuzkoako klubean arteko Trinkete Txapelketan eskuz binaka ere txapeldun izan da Andatzpe-Peña Pagola elkarte. Duela hilabete batzuk Mikel Landa banakako txapeldun izan zen eta duela gutxi Enrike Huizi eta Mikel Landak berak eskuz binakako txapela lortu dute Villabonako Behar Zana taldeko pilotari 40-35 irabazi eta gero.

Horrez gain, herriko beste bi pilotariak ere klubean Udaberri Txapelketako finala jokatu dute ostiral honetan Aizarnazabalgo pilotalekuan. Arratsaldeko 20.00etan hasitako jaialdiko 2. partidari

Oidui Usabiaga eta Jon Arrutik Zumaia taldeko palisten aurka jokatu dute pala motzean.

Herriko pilota elkarteak eskerrik beroenak eman nahi dizkie laguntza eman dien guztiei. Dagoeneko 320 laguntzaile lortu dituzte eta herritar hauez gain, Udala, Herriko enpresa eta komertzioak, Pilota Eskolako gurasoak eta Andatzpe eta Peña Pagola ere eskertu nahi dituzte. Oraindik ere Usurbilgo Pilotaren laguntzaile egin daiteke urtean gutxienez 10 euroko laguntza emanda eta igande honetan, adibidez, laguntzaile guztien artean bi mariskada zozketatuko dira goizeko pilota partidetan.

JOSU ARANBERRI

Kadete mailako neskek finala jokatu dute

KUdaberri txapelketako finala jokatu du asteburu honetan. Beraien multzoan lehen postua eskuratu dute usurbildarrek eta Aldaketa Hamasei Zarautz taldea izango dute aurrez aurre azken neurketa honetan. Horrez gain, Federazio txapelketan ere finalerdietarako txartela lortu zuen talde honek eta Groseko taldearen aurka jokatu behar du lastrer. Bestalde, asteburu honetan ekingo diote Kopa txapelketari Aiala-Zarautz taldea izango dutelarik lehenengo aurkaria.

Herriko bi futbol talde asteburuan Zubietan

Asteburu honetan herriko bi futbol taldek jokatu dute Zubietako belar artifizialeko zelaian. 1. Erregionalekoak Hondarribia B taldea izango du aurrez aurre. Azken partidetan garaipenik ez dute lortu usurbildarrek eta horrenbestez 6. postuan kokatuta dira sailkapenean. 2. jubencil mailako taldeak, berriz, UPV-San Patrizioren aurka jokatu du. Hiru partida jarraian galdu ondoren pasa den asteburuan 1-1 berdindu zuten eta ezustekoa ematen saiatuko dira 3. postuan dagoen taldearen aurka.

Agenda !!

Apirilak 7, ostirala

- 22:30ean Anariren kontzertua Sutegin.
Antolatzailea: NOAUA!

Apirilak 8, larunbata

- 12:00etan, "Arratsalde bat zinean" antzerkia Santuenea Kultur Elkartearen aretoan.

- 16:00etan Sutegin herri batzarra. Gaia: egoera politikoaren azterketa (su-etena, prozesua...).

Apirilak 9, igandea

- Toka Txapelketa Aitzagak antolatuta, 12:00etan. Izen-ematea: 3 euro. Sariak izango dira. Ondoren, hamaiketakoa.

Apirilak 12, asteazkena

- Gonbidatu eta komunikabideentzat XXV. Usurbilgo Sagardo Egunaren aurkezpen ekitaldia.

Apirilak 23, igandea

- 16:30ean eta 18:30ean (bi saio), "Groau!" antzezlanaren antzezlana Sutegin.

Apirilak 25, asteartea

- 19:30ean, "Sagarra, sagardoa eta sagarriak sukaldaritzan" ikastaroa Agerialden. Maiatzaren 2, 9 eta 16an jarraituko du.

Apirilak 26, asteazkena

- 19:30ean, Sutegin, Andoni Egañaren hitzaldia. Ahozkotasuna hizpide. Antolatzailea: Nafartarrak.

Apirilak 28, ostirala

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eta eta bere estatus politikoa aitortzeko elkarretaratzea pilotaleku atzean. 20:00etan. Deitzailea: Etxerat!

Apirilak 29, larunbata

- 22:30ean "Ahulkiak" antzezlana Sutegin.

Literaturaren txokoa !!

Hamabost ipuin, "Hamabost zauri"

Karmele Jaioek Hamabost ipuin bildu ditu. Giza harremanetan sortzen diren zailtasunak, esan gabeko hitzek barruan eragiten dituzten zauriak eta hasperen baten atzean egon daitezkeen pentsamenduak azalera ekartzen saiatu da.

Gizon-emakumeen arteko hartu-eman beti korapilatsuetan oinarritu da Karmele Jaio bere lehenengo



liburu eder eta tarteka mingarri hau idazteko.

Binakako bakardadea, komunikazio-inkomunikazio arazoak, desiraren eta errealitatearen arteko amildegia... gai horietatik abiatu eta elikatzen dira hamabost istorio hauek. Hasperen baten atzean egon daitezkeen pentsamenduak hitzen bitartez irudikatuz, burutik pasatu baina esan gabe geratzen diren esaldiak azaleratuz.

Egin kontu !!

Nekazarientzat oharra

Nekazaritzarako ezarrita dagoen uraren tarifa berezia eskatzeko garaia da. Apirilaren 15ean amaituko da eskaera egiteko epea. Berez, urte osoan eskatu daiteke tarifa berezia. Baina orain lehenengo hiruhilabetekoari dagokiona da mahai gainean dagoena. Honi buruz informazioa nahi duenak dei dezala udaletxera (943 37 19 51). Begoña Rodriguez udal teknikariak nahi adina azalpen emango dizkie interesatuei.



APIRILAREN 15EAN AMAITUKO

DA ESKERA EGITEKO EPEA.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitetz!

Noaua !!

36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile alokatzen da. Bi logela dauzka. Hondartza gertu. Guztiz jantzita, terraza eta jardina. Pazkoa, aste buruak eta udarako. Merkea. Camping La Civelle 3***. 685 721652 edo 665 734009.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamiento ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gaztelaraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehentetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehentetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko

zerbaitetan. 652 757 495.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- 4 urteko umea zaintzeko norbait behar dugu. Goizean ikastolara eramateko eta eguardirako. Gida baimena eduki behar du. 675007048
- Antxeta tabernan bi langile behar ditugu: kamarera bat eta sukaldean aritzeko langile bat. 943 37 03 44. Orduategia: astelehentetan, 13:00etik 16:30era. Asteartetik ostegunera, 13:00etik 16:00etara. Ostiralean, 13:00etik 16:00etara eta 20:00etatik 00:00etara. Larunbatean, 07:30etik 12:30era.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza .645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Andoaingo Zine eta Bideo Eskolak 7 laburmetraia egiteko aktoreak behar ditu euskaraz zein erdaraz. 667886414 telefonora deitu (Miren).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. Telefonoa 617242660 edota zapore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazuarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroni pasako ginatete jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. Gure telefono zenbakia: 667 694 049.
- Zubietatik Andatarako bidean hiru giltza topatu ditugu. Galdu dituenak jakin dezala udaltzaingoa utzi ditugula.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Maria!
Muxu handi bat
Sandra, aita eta ama-
ren partez.



Aupa hirikote! Udaberriari aurrea
hartu diozuela, alajaina!
Zorionak eta muxu handi bana Joxe
Mari, Ainhoa eta Aiala!!

Zorionak Saioa!

Apirilaren 9an 23
urte betekoitun eta!
Lagun guztin partez
(gutxi ezitunela)
jakintzan bazkaya hire
kontua zienela...je,je... Muxu asko!



Apirilaren 18an beteko dituzue 50
urte ezkondu zinetena. Zorionak
Asun eta Pedrori familia osoaren par-
teza eta muxu handi bat.

JAIOTZAK

- Joritz Illarramendi Bereziartua
Martxoaren 25ean. Aginaga.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400

pintxoak
ogitartekoak
plate konbinatuak

TABERNA

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

ZUBIAURRENEA4, USURBIL

ileapaindegi mistoa

943361951

ALDATZ KIROL MODA
Dagoeneko prest daukagu
UDARAKO ARROPA

%30
 Zapatilak, kamisetak, gaitza motzak
 sudararak, gaitza, isalajantziak,
 txandakak, eta ...

%50
 Jertseak eta txanarrak

Alperro Buru 2 - Usurbil - 943 366 542



Aprobetxa ezazu



Jar ezazu zure
 publizitatea Noauaren
 Edertu Zaituz Gidan
 ☎ 943 36 00 07 • publizitatea@noaua.com



Lehiaketa

"Munduko jolasak" CD-romean,
 bost kontinenteetako 100 jolasetik gora
 bildu dira. Gehienak taldean egiteko jolasak
 dira, 3-16 urte bitarteko haur eta
 gaztetxoentzat egokiak direnak. Txatxilipurdi
 taldeak osatu duen CD hau eskuratu nahi
 baduzu bidali e-posta bat erredakzioa@noaua.com
 helbidera. Zozketa apirilaren 8an egingo dugu.
 Animo eta zorte on!



Bidali e-maila erredakzioa@noaua.com.
Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).

nolako ikasketak, halako etorkizuna

Herta Mager Arregi,
Marketin-Teknikaria Ulma Packaging enpresan.

*"Mondragon Unibertsitatea? ikaslearengandik
gertu-gertu dago eta enprekin lotura
zuzena du"*

